

Euskal Herriko eskola-gazteak telebistaren katean

**Jose Inazio Basterretxea (EHU-UEU), Petxo Idoiaga (EHU),
Esther Zarandona (EHU-UEU), Txema Ramírez de la Piscina (EHU-UEU)**

Honako artikulu honek bere baitara biltzen ditu Euskal Herriko lau uni-
bertsitate-irakaslek 2003-2005 bitartean egin duten ikerketa baten emaitze-
tako batzuk: gazteak eta telebista-kontsumoaren azturak erlazionatzen
dituztenak. Ikerketa-taldearen aburuz, telebistaren katean bizi diren arren, oro
har, gazteek ez dute garatu ikus-entzunezkoek eskaintzen dituzten eduki
sinbolikoak modu askean eta era kritikoan deskodifikatzeko tresna intelektual
egokirik.

Ildo horretatik, hemen azaltzen den ikerketaren atalak honako helburu
bi hauek izan ditu jomugan: teknologia komunikatiboen baitan, jakitea zein
den gazteek duten ikus-entzunezko hedabideen kontsumo-maila, hori batetik;
eta, bestetik, telebistari begira jartzen direnean, jakitea zein den euren
alfabetizazio berezituaren maila medioetan.

The present article summarizes some of the conclusions from research carried out
by four Basque professors between 2003 and 2005 regarding the media literacy of Basque
teenagers (ages 14-18). In this case, the teenagers' television viewing habits were
specifically analyzed. According to the research group, despite the high degree of television
consumption, these teenagers are not able to critically and freely analyze the contents of
television programming.

The research group had two primary objectives: to find out their consumption of
media and find out their degree of media literacy when they are in front of the TV.

1. Sarrera

Inguru hurbila eta mundu zabala ezagutzeko, tresna kognitibo giltzarria da gizarte-komunikazioa deitua. Telebista, irratia, egunkariak, Internet... masa-komunikazioaren euskarri material horiek dira gizaki modernoarentzat munduan gertatzen denaren narratzailerik behinenak. Auzoan nahiz atzerrian gertatzen denaren berri, gizaki modernoak hedabideei esker du, horien konkurrentzia behar du informaturik eta formaturik izateko. Horretaz gain, gizarte aurreratuetan, aisia betetzeko parada eskaintzen dute publikoari begira ekoiztako eduki informatibo eta formatzaile horiek.

Informazio-gizartea abiadura handian ari da hedatzen munduko lau bazterretan, are modu zorabiagarriagoan gure artean, Mendebalde industrializatu eta garatuan. Euskal Herrian ez da arrotza prozesu hori. Hedabide berriak agertzea, zaharrak itzaltzea edo egokitzea, kontsumo-azturak berritzea eta harreman pertsonalen berrikusketa ekarri dituzte eurekin komunikazioaren teknologia berriek.

Gure artean, ia etxerik ez dago telebistarik edo irratirik gabe eta ez dago gazterik telefono mugikor barik edo MP3 delakoa eskuetan hartu ez duenik. Ordenagailuak, Internet, DVDak... gero eta hedatuago daude eta ezagunagoak zaizkigu. Komunikazio-aztura berrien lekuko ari gara izaten. Manuel Castells-ek mediasferaren baitan *sare-gizarte* moduan definitu izan duen hori gero eta ezarriagoa da gure artean.

Hedabideen jarioa eta diskurtso mediatuen testu-artekotasunak direla eta, informazioa informazioaren gainean da gizarte modernoaren ezaugarrietako bat: egunero-egunero jasotzen baititu herritarrak era guztietako mezuak, irudi kontaezinak, seinale eta zeinu zenbakaitzak.

Itxuraz, mundua gero eta hurbilago dago telebistari begira jartzen garenean, halaber gero eta urrunago begitantzen zaigu, gero eta zailago egiten baitzaigu hitz eta irudi bakoitzaren atzean dagoen errealaren isla zein den zehaztea eta jakitea. Zer den egia eta zer ez jakitea, gero eta gaitzago egin zaigu denei.

Sare-gizarteak berarekin ekarri dituen aztura komunikatzaile berriak direla eta, gizakiarentzat ezinbestekoak dira komunikazio-arloko alfabetizazioa eta trebakuntza, oro har, kulturalki modu egokian janzteko eta, konkretuki hedabideek eskaintzen dituzten informazio- eta kultura-produktuen aurrean modu beregainean erabakiak hartu ahal izateko.

Herritarrek lantresna intelektualak eskatzen dituzte hedabideen jario horiek prozesatzeko eta ulertzeko. Gero eta gehiago dira gainera eduki sinboliko horien prozesamendurako erreminta kritikoak eskatzen dituztenak. Informazioa informazioaren gainean esan dugu arestian, desinformazioa ere izaten da informazioaren gainean. Gero eta lagun gehiago dira bonbardaketa iraunkor eta badaezpadako horren aurrean arduratzen hasita daudenak.

Jakina denez, komunikazioa ikasi beharrekoa den zerbait da. Herritarrak ikasi egiten du komunikatzen. Ikasi, bere burua komunikazio-prozesuetan txertatzen. Iruditzen zaigunez, orain gizaki modernoak ikasi beharko luke masa-komunikazioaren ekoizpen kulturalak eta eduki sinbolikoak deskodifikatzen.

Ikerketa-talde honen iritziz, gazteek (adinekoek bezala) badute hutsune bat eta zer ikasi behar bat komunikazio publikoaren arlo zabal horretan. Komunikatzen ikasi behar dute, eta ikasi, ikasi behar dute komunikatu zaiena deskodifikatzen, ulertzen, interpretatzen... lastoa eta alea apartatzen.

Gaur egun, eskolak beste sozializatzen du herritarra gizarte-komunikazioak. XXI. mendeak eskatzen duen hezkuntza osatu berriari begira, alfabetizazio mediatikoa *era desberdineko komunikabideetako edukiak kontsumitzeko, aztertze eta sortze ahalmen jasoa da*. Horra definizioa. Alfabetizazio mediatikoak, beraz, aukera intelektuala eman behar dio medioen kontsumitzaileari ikus-entzunezko, Internet bidezko, paperezko nahiz bestelako formatuetan komunikatuak izan daitezkeen mezuak deskodifikatzeko eta interpretatzeko. Heziketa-moduko bat da alfabetizazio mediatikoa eta, bere zentzurik demokratikoenean, ahalbidetu beharko lioke herritarrari nahikoa trebetasun eta abilezia komunikatzailea, egun munduak darabiltzan media-formatu guztietan, modu egokian igorle-papera bereganatzeko¹.

Alfabetizazioa *modu dinamikoan* ulertu behar dugu. XIX. mendeak herritarrari eskatzen ziona *alfabetatutzat* hartzeko eta mundu modernoak eskatzen diona ez dira bat. Une honetan, mundu garatuan, ez zaio alfabetatuari eskatzen letrak ezagutzea bakarrik. Mundu modernoak erretorika eta argudioa eskatzen dizkio. Poesia ulertzea, metafora ulertzea, elipsiaren balioa harrapatzea... horiek guztiak beharrezkoak ditu herritarrak mezu konplexu modernoak ulertzeko. Gizarte-komunikazioaren mezuen deskodifikazio zuzena, naturala, ez da nahikoa. Irakurketa denotatiboak ez dira nahiko, konnotatiboak ere behar ditu herritarrak mezu mediatikoa ulertzeko. Nola, bestela, adibidez, publizitatea ulertu?

Telebistari dagokionez, artikulua honen muina den ikus-entzunezko diskurtso publikoari gagozkiola, gazteak bizi du sinestesia maltzur moduko bat, zeinaren bidez irudiarekin liluraturik erreala eta dramatizazioa nahasten baititu. Arlo horretan, eskola-gaztea infra-alfabetaturik dago.

Ahula da komunikazioaren gaineko heziketa gure gazteen artean. Ikuspuntu horretatik begiratuta, ondo legoke hezkuntza-sistema arautuan txertatzea ikasketa bereziak komunikazioaren mundua ulergarriagoa izan dakion gazteari, liluretatik harago.

1. Azken berrogei urteotan autore asko izan dira arlo honi buruz ikertu eta teorizatu dutenak. Euren zentzu global eta irekiagatik, azpimarragarria iruditzen zaizkigu herri anglosaxoietan egin diren zenbait lan: Mastermann (1979, 1980, 1985, 1993), Luckham (1975), Firth (1976), Golay (1973), Gerbner (1983), Jones (1984), Duncan (1996), Nathanson (2002, 2004), eta Buckingham (2005). Gaztelahiztunen komunitatearen baitan interesgarriak egin zaizkigu honoko hauen lanak ere: Kaplun (1998), Aparici (1994), García Matilla (1996, 2004), Aguaded (1998, 2000), Orozco (1999); aitzindari-eginkizuna bereganatu du arlo honetan Espainian *Comunicar* aldizkariak. UNESCOk berak ere hainbat irizpide hedatu ditu 1980. urteaz aurrera. Hedabideen diskurtsoa ikasgeletan nola aztertu eta hedabideen jarduna ikasgeletan nola erabili azaltzeko ere, irizpide ugaria aurkitu lezake interesatuak honoko autore hauen lanetan: Hall & Whannel (1964), Galtung & Ruge (1965), Berger (1972), Cohen & Young (1973), Hall (1977), eta Bonney & Wilson (1983). Bibliografia-laburpen honek ezin du bukatu Celestin Freinet irakaslea aipatu barik. Freinet izan baita, pedagogia popularra bataiatu zuenaren baitan, *berrien berri* izateko eta *berri berriak* idazteko, egunkaria eskolara eramanez lehen maisua.

Ez da paradigma profilaktikoa proposatzen duguna, hots: *gizarte-komunikazioa arriskutsua da, babes gaitzen!* Ez da estilo horretakoa gure deia. Formazioa eta sormena eskatzen ditugu. Gizarte-komunikazioa saihestezina da gaur mundu industrializatu eta garatuan. Bada, ikas dezagun eta treba gaitzen media eta eduki berrietan. Hedabideen *alfabetoa* ezagutu behar dugu, bere erretorika eta argudio-sistema.

Garrantzitsutzat jotzen dugu alfabetatzea modu jasoan gauzatzea, kultura-enpresek (ikus-entzunezkoak, egunkariak, irratiak, diskoetxeak, Internet...) ekoizten dituzten eduki sinbolikoak (albisteak, iruzkinak, filmak, kantuak, nobelak, komikiak...) modu askean eta kritikoa interpretatzeko.

2. Ikerketaren diseinua

Zer harreman dute gazteek eta nerabeek hedabideekin eta teknologia komunikatiboekin? Zertarako erabiltzen dituzte horiek guztiak? Zer dute atsegin masa-kultura mediatuan? Nola baloratzen dute oro har kultura mediatua? Egia al da telebistak eta Internet-ek harrapaturik bizi direla gure nerabeak eta gazteak? Eta, sakelako telefonoari kateaturik bizi al dira?

Itaun horiei eta beste batzuei erantzuteko, EHUK eta Eusko Jaurlaritzak finantzaturako zenbait ikerlan² egin ahal izan ditugu Euskal Herriko eskoletan eta institutuetan joan berri den ikasturtean. Jakina, Ipar nahiz Hego Euskal Herriko ikasleen eta irakasleen kolaboraziorik gabe, eskuartean duzun lan hau eginezina zatekeen. Eskerrak beraz parte hartu izan duten guztiei.

Gaiaren konplexutasunari erantzun ahal izateko, esparru berezi bi jorratu ditu lanak ikuspuntu metodologikotik ikusita: batetik, lan kuantitatibo bat egin da (inkesta bat pasatu da Euskal Herriko hogeita hamabost ikastetxetan³); eta, bestetik, lan kualitatibo bat egin da (eztabaida-taldeak antolatu dira zortzi ikastetxetan⁴, 14-18 urte bitarteko gazteekin).

Nagusien antzera, gazteek ere kultura-produktuak kontsumitzen dituzte, ordu asko igarotzen dituzte horiek eskuetan dituztelarik. Gizarteko gainerako adin-mailetakoa herritarrek bezala, gazteek musika eta literatura kontsumitzen dute, informazioa eta iritzia kontsumitzen dute, publizitatea, zinema... Oro har, gizarte

2. Alfabetizazio mediatikoa eta Euskal Herriko eskola-gazteak, UPV0015.323-H-15411/2003

3. Ikaslearen ikasketako hizkuntza-profila (A, B, D, G), irakaskuntza-espezialitatea (batxilergoak), ikastetxearen jabetza-estatusa (publikoa nahiz kontzertatua) eta ikastetxearen kokapen espaziala (hiri nahiz herri, eta lurraldea) hartu dira kontuan ikastetxeen zerrenda egitean. Araban bost ikastetxetan pasatu da inkesta, zentro horietatik bi publikoak izan dira, beste hiru kontzertatuak. Bizkaian hamar ikastetxetan, lau publikotan eta sei kontzertatutan. Gipuzkoan, zazpitan, hiru publikotan eta lau kontzertatutan. Iparraldean bostetan, publiko bitan eta hiru kontzertatutan. Nafarroan zortzitan, lau publikotan eta beste lau kontzertatutan. (Guztira 1882 inkesta jaso da, CIES etxearen laguntzarekin).

4. Ikastetxe bakoitzean jarduera-egun bi burutu dira ikasleekin. Eztabaida lau eta zortzi ikasle bitarteko taldeetan garatu da. Talde horiek osatzeko, kontuan hartu dira ikasleen adina, eta sexua. Honako ikastetxe hauetan landu dira eztabaidak: Bilboko Salesianoen ikastetxea (LH, kontzertatua, konfesionala), Gernikako institutua (DBH, publikoa), Iruñeko San Fermin ikastola (DBH, kontzertatua), Iruñeko Jesuitak (kontzertatua, konfesionala), Gasteizko Koldo Mitxelena institutua (DBH, publikoa), Azpeitiako ikastola (kontzertatua), Bilboko Txurdinaga-Artabe institutua (DBH eta LH, publikoa), Tolosako institutua (publikoa).

modernoak aisia betetzeko eta ikasketa- nahiz formazio-jardueretarako sortzen dituen produktu horiek guztiak kontsumitzen dituzte gazteek. Kasu batzuetan, adinekoek baino sano gehiago.

Kontsumo hori batzuetan kritikoa da, eta beste askotan ez da hain kritikoa, horretan bat datoz gazteak nagusiekin: gauza bat esan eta beste bat praktikatzen baitute sarritan. Ikerketaren bidez mundu korapilatsu horretara hurbildu nahi izan dugu. Nerabeen eta gazteen jarrera aztertu dugu honako produktu hauekiko: prentsa idatzia (egunkariak eta aldizkariak), liburuak, telebista (publikoa nahiz pribatua), irratia (informatiboa nahiz musikala), Internet, eta teknologia eramangarri komunikatibo berriak (sakelako telefonoa).

Gure nerabeek ikastetxeetan erantzun duten inkestak berrogeitik gora galdera zituen, eta horietan galdetzen zitzairen ea zenbat denbora eskaintzen dioten egunero hedabide-mota bakoitzari, ea zer komunikazio-tresneria duten etxean oro har eta nork bere erabilera indibidualerako, ea zer arreta eskaintzen dioten prentsa idatziari, ea nola kontsumitzen duten irratia, eta gauza bera telebistarekin eta Internet-ekin, ea zelan deskodetzen duten publizitatea, ea zertarako erabiltzen duten telefono mugikorra eta abar.

Bestalde, ikastetxeetan bertan sortu ditugun eztabaida-taldeetan, gazteek askatasun osoz hitz egin dute hedabideetako informazio-jarduerari buruz, bai eta publizitateari buruz. Galdetu zaie ea hedabideek ondo informatzen duten, ea zertan datzan manipulazioa, ea zergatik hobesten dituzten eurek hedabide batzuk eta ez beste batzuk. Eztabaida-talde horietan luze hitz egin dute publizitatearen eraginaz, ezartzen duen moda-ereduaz, gizarte-sinbologiaz, diruaz eta estatusaz.

Arestian ere esan izan dugunez, ikerketa zabal horren zati bat ekarri da artikulu honetara. Hona aldatu diren datuak eta iruzkinak atal jakin bati dagozkionak dira: telebistari buruzkoak. Eta datu horiek guztiak, bi esparru nagusitan banatuta aurkituko ditu artikulu honen irakurleak.

Alde batetik, artikulu honetan eskaintzen da lan kuantitatiboaren emaitza, inkestaren datuen emaitza, non azaltzen baita nagusiki zein den Euskal Herriko nerabeen eta gazteen telebista kontsumo-aztura. Atal horretan azaltzen dira zeintzuk diren produkturik gogokoenak, eta kate ikusienak.

Ondorioak ondorio, inkestari begira inferitu ahal izan dugunez, egokia da esatea ezen Hegoaldeko gaztea Espainiako telebistei begira bizi dela; eta, Iparraldekoa Frantziakoei. Ildo horretatik ikusten dugu telebista-kontsumoa erdaraz gauzatzen dela hein handi batean, bai Iparraldean bai Hegoaldean ere. Era berean, argia da ezen Iparraldeak Hegoaldeko telebista ezagutzen ez duen modu berean, Hegoaldeak ez duela Iparraldekoa ezagutzen; Euskal Herriak egitura administratibo komunik ez edukitzeak zailtzen du, seguru asko, Bidasoaz alde bietarako telebista-eskaintza komuna ahalbidetzea. Produktu auto-zentratu gutxi kontsumitzen du telebistan Euskal Herriko gazteak.

Bestalde, ikastetxeetan garatu diren eztabaida-taldeek eman duten informazioari esker, artikuluan deskribatzen da zein den gazteen jarrera telebistako informazio-genero jakinei buruz.

Eztabaida-talde horietan ikusi dugunez, itxuraz, Euskal Herriko nerabeek eta gazteek modu kritikoz ikusten eta kontsumitzen dute hedabideetako informazioa. Erakutsi dutenez, irakurketa kritikoaren diskurtsoa ezaguna zaie. Baina, baieztapen horrek ñabardura askoren beharra du. Talde-eztabaidetan erakutsi dutenez, ikus-entzunezkoen narrazio-teknikak ez dira oso ezagunak gazteen artean eta gazte horiek benetako zailtasunak dituzte dramatizazio informatiboaren ardatzak deskodifikatzeko: sarritan nahasten dute erreala eta telebista-literatura.

3. Teknologia komunikatiboen lilura gazteengan

Ondoko datuek erakusten dutenaren arabera, esan genezake ezen gure gazteak, hezkuntza-sistemaren baitan daudenak behinik behin, oro har, tresna komunikatibo ugariaren jabe direla. 1. taulako datuei kasu eginez gero, Euskal Herriko gazteak punta-puntako teknologia komunikatiboen erabiltzaile dira:

Inkesta (Datu orokorrak)			
Etxetresnak. Erabilera pertsonala.			
Mugikorra	% 88		
Walkman/Disc	% 80	Bideojolasen kon.	% 30
Musika-ap.	% 70	Internet	% 25
Irratia	% 52	TB aparatua	% 24
MP3 errep.	% 47	DVD errep.	% 16
Argazki-kam.	% 36	Bideo-errep.	% 12
Ordenagailua	% 33	Bideo-kam.	% 10

Datuen iturria: CIES.

1. taula: Basterretxea, Idoiaga, Zarandona, Ramírez de la Piscina (2005).

Taula horretan ikusten da zein den gaztearen hornikuntza teknologiko pribatua, erabilera pertsonalerakoa, alegia: gazteak berak eduki daukana bere zeregin pertsonalerako. Datu horietatik at, kontuan hartu behar da gazteak ere baduela kontaktu zuzena teknologia komunikatibo horiekin guztiekin eskolan bertan, etxean eta kalean.

Inkestako datu orokorretatik erakar daitekeenez, ia gazte guztiak dira telefono mugikorraren jabe, ia denek erabiltzen dituzte *normaltasunez* walkman-a eta musika-aparatua. Erdiek dute irratirako sarbide beregaina: izan irrati-aparatu arrunta, izan sarearen bitartezkoa.

Taula horretan ikus daitekeenez, Euskal Herrian eskolatutako gazteentzat ez dira batere arrotzak teknologia komunikatiboak: argazki-kamerak, ordenagailuak, bideojolasen kotsolak ohikoak dira. Eskola-gazteetatik herenak *bere* ordenagailua du. Laurdenak telebista propioa du, eta Internetarako lotura. DVDak ohikoak dira, bideo-irakurleak eta grabagailuak bezala.

Ikusten denez, askotariko eduki kulturalak kontsumitzeko erraztasun teknologiko ugariren jabe dira gure gazteak. Hori jakinda, alegia: teknologien jabetza numerikoaz gain, berebiziko ardura geneukan ikerlariok jakiteko zein den gure gazteen kontsumo jakina, teknologia komunikatzaile horiek guztiek gazteen esku uzten dituzten produktuen kontsumo jakina.

Tresna horiek guztiak darabiltzatela, gazteei galdetu diegu ea zenbat denbora ematen duten hedabide-komunikabide bakoitzari begira. Besteak beste ikusi dugunez, *segapotorik* gabe ez daki gazteak bizitzen. Baina hori ez da artikulu honen gai zentrala.

Hedabideei buruz zuzen galdetuta, erantzun digutenez, astean gehien kontsumitzen duten hedabidea telebista da (ikus 2. taula). Gazteek eurek diotenez, hamar gaztetik ia zortzi dago telebistari begira asteko egun guzti-guztietan. Beste muturreko datua da honako hau: gazteen % 2k adierazten du ezen telebista ez dela berarentzat hedabide aipagarria; baina hori anekdotikoa da.

14-18 urte bitarteko gazteen kontsumoa					
	Prentsa	Irratia	Telebista	Internet	Liburuak eskolatik at
Astean, 5-7 aldiz	% 18	% 38	% 78	% 35	% 12
Astean, 3-4 aldiz	% 14	% 15	% 13	% 21	% 15
Astean, 1-2 aldiz	% 31	% 17	% 05	% 20	% 27
la inoiz ez	% 33	% 25	% 02	% 20	% 38
Ez daki, ez du erantzuten	% 04	% 05	% 02	% 04	% 08

Datuen iturria: CIES.

2. Taula: Basterretxea, Idoiaga, Zarandona, Ramírez de la Piscina (2005).

Telebistaren ondoren, irratia da kontsumituena. Gazteen artean, hamarretik lauk egunero entzuten du irratia. Hirugarren koska batean dago Internet: herenetik gora sartzten da sarean asteko ia egun guztietan. Baina, edozelan ere, telebista da gazteak gehien kontsumitzen duena, irratia baino bi aldiz gehiago eta Internet bera baino bi aldiz gehiago.

Hedabide tradizionalagoak kontuan hartuz gero, ikusten da paperezko prentsa idatzia oso aparte gelditu dela gazteen ohiko kontsumoan, oraingo gazteak ez du papera gustuko. Oro har, gazteak ez du kontsumo orekaturik prentsa idatziari gagozkiolarik. Hamarretik bik-edo irakurtzen du egunero berripapera. Heren batek aitortzen du astean behin-edo eskaintzen diola tarte bat zuriaren gaineko letra idatziari. Beste heren batek aitortzen du ezen behin ere ez dela hurbiltzen paperezko hedabide idatzietara.

Ikus-entzunezko kulturaren txertatutako gaztea da gurea. Irudiaren lilura bizi du Euskal Herriko gazteak, dela genero errealekoa (albistegiak, dokumentalak...) dela fikzioa (serieak, filmak, marrazki bizidunak...). Eduki sinbolikoen eroale gisa, letra idatzia ez da batere hobetsitako tresna. Eskolatik at, gure gazteek ez dute apenas irakurtzen, ez dute egunerokotasunarekin apenas irakurtzen: berripaperak pixka bat eta liburuak maiztasun mugatuan.

3.1. Irudia, ahozkoatasunaren gainetik

Begia belarriaren gainetik. Esan liteke ezen gaztea irudiari begira bizi dela. Gure gaztearentzat irudiari lotuta dago munduaren errepresentazioa. Eskolatik at, gazteak ez dio apenas aukerarik uzten hitz esan edo idatziaren bidezko erre-presentazioari. Nahikoa bigarren mailakoa da munduaren ahozko erre-presentazioa. Musikari lotuta bizi du gazteak oralitatea.

Bestalde, inkestan eta eztabaida-taldeetan ikusi ahal izan dugunez, Euskal Herriko gazteek ez diote arreta handirik jartzen albisteari, notiziarri. Telebista egunero kontsumitu arren, batez ere, fikzioa kontsumitzeko erabiltzen dute. Aisian kontsumitzen dute gazteek hedabidea, telebista. Eta aisia betetzeko tresna moduan ulertzen dute telebista.

Gauzak horrela, Euskal Herriko gaztea teknologiaren liluran eta irudi antropomorfoaren nahiz alegiazkoaren kontsumoan ohituta dagoen herritarra da. Tarte txikia uzten diona kulturaren transmisio-bide tradizionalari. Hedabideen kontsumo orokorrari gagozkiolarik, gure gaztea ez da hitzetan sozializatutakoa, irudian baizik.

Ikerketa-talde honek eztabaida-taldeetan ikusi ahal izan duenez, irudiaren lilura bizi duten arren, edo agian lilura hori bizi dutelako, gazteak ez daude behar bezala jantzita irudiaren deskodifikazio osotua praktikatzeko. Kontsumoa eta prestakuntza ez datoz bat arlo horretan. Gazteek eurek agerian utzi dutenez, telebista-produktuen irakurketa kritikoa praktikatzeko, eskolak ez du eredu argirik ezartzen batetik, eta, bestetik, gurasoak ez daude nahikoa jantzita.

4. Telebista: gaztearen katea

Euskal Herriko nerabeek eta gazteek aitortzen dutenez, entretenimendu-modu bat da batez ere telebista. Adierazten dutenez, telebistara hurbiltzen direnean, hurbiltzen dira aisia betetzeko aukera moduan. Denbora-pasarako erabiltzen dute nagusiki gure gazteek telebista. Eta horixe bera adierazten dute inkestatu direnen arteko hamarretik zortzi pasatxok (% 84).

Nerabeek eta gazteek aitortzen dutenez, badakite, jakin, ezen ikus-entzunezko hedabideak boteretsuen eta ahaltsuen eskuetan daudela, eta ez dituztela sarritan giza balioak sustatzen. Hala ere, hedabide horren kontsumo-maila esanguratsua praktikatzen dute. Bestela esanda: ez dute saihesten kritikatzten duten hura.

Gazteen artean, sexuak eta adinak ez dute estadistikoki kontuan hartzeko moduko desberdintasunik ezartzen telebistaren aurrean jartzeko orduan: ordu-kopuruari erreparatuz gero, berdin antzera ikusten dute telebista neskek eta mutilak,

berdintsu hamalau urtekoek nahiz hemezortzikoek. Oro har, gure nerabeek eta gazteek ordu bat edo bi jartzen dira telebistari begira astegunez (aisiaren zatirik handiena, beraz), eta hirutik gora asteburuez (aisiaren tarte esanguratsu bat, beraz). Oso kontuan hartzeko moduko lekua hartzen du telebistak nerabeen eta gazteen bizimodu ludikoan.

Kontsumo hori lurraldeka ikustean, argi azaltzen da ezen gehiago ikusten dela telebista Euskal Autonomia Erkidegoan, eta gutxiago bai Nafarroan eta Iparraldean ere. Baieztapen hori ilustratzeko, esan dezagun ezen inkestatutako arabarren arteko % 81ek aitortzen duela egunero-egunero ikusten duela telebista; Iparraldean, aldiz, datu hori % 68ra jaisten da.

Telebistaren kontsumoa aztertzean, desberdintasun estatistiko mugatua ezartzen du hizkuntza-profilak: % 5 gehiago kontsumitzen dute telebista ikasketaredu elebidunetako gazteek, erdarazko hutsetakoek baino. Gizarte-estatusak, aldiz bai: gehiago ikusten dute estatus baxukoek, altukoek baino, bi estatus horien arteko kontsumo-lubakia nabarmena da: % 12 gehiago ikusten du telebista estatus baxukoak. Era berean, gehiago kontsumitzen da telebista hiri handietan herri txikietan baino: kontsumo-lubakia % 13ra heltzen da hirien alde.

Arestian esan dugunez, gazteak entretenimendua bilatzen du telebistarekin. Telebistak harrapatu egiten dituela aitortzen dute inkestatuek, mendekotasuna eragiten duela diote, hots, ikusten hasita, jarduna eteteko zailtasuna dute. Euskal Herriko nerabeen artean, hamarretik zazpi (% 67) aitortzen du hori.

Oro har, nerabeek diote euren intereseko programak aurkitzen dituztela telebistan, iritzi horretakoak dira inkestatuen hamarretik zazpi (% 73). Baina ez dituzte programa guztiak berdin ikusten eta baloratzen. Gazteek diotenez, telebistako eskaintzatik ezabatu beharko lirakeke inoren bizitza pribatua gaitzat hartuta egiten diren programa horiek, horrela mintzo da inkestatuetatik hamarretik zazpi (% 71). Oso diskurtso kritikoa azaldu dute gazteek programa-mota horren aurrean.

Asko kontsumitzen du gazteak telebista. Zer programa-motaren bila jotzen du gazteak telebistara? Gazteek erantzun duten inkestaren atal garrantzitsu bat izan da hori. Hona emaitzak:

Gazteen kontsumoa, generoka:	
1. Serieak	6. Denbora-pasakoak
2. Filmak	7. Informazio orokorra
3. Umorea	8. Kultura eta dokumentalak
4. Musikalak	9. Lehiaketak
5. Kirol-emankizunak	10. Inoren bizitza pribatuari buruzkoak

Datuen iturria: CIES.

3. Taula: Basterretxea, Idoiaga, Zarandona, Ramirez de la Piscina (2005).

Bada, argi eta garbi: fikzioaren bila jotzen du gazteak. Genero errealak atzetik datoz, eta hasi kirol-emankizunekin hasten dira. Kultura bera ere, atzerago gelditzen da.

4.1. Hegoaldeko gazteak, Espainiari eta erdarari begira

Hego Euskal Herriko gazteen eta nerabeen telebista-kontsumoa irekia da, gazteak ez du bakarrik kontsumitzen bere esparru hurbileko telebista, bere begiak irekitzen baititu zirkunskripzio administratibo zabalagoko eskaintzara. Inkestak erakutsi duenez, oro har, Hegoaldeko gazteak Espainiako telebista hartzen du begietan. Eta bistan du, batez ere, telebista pribatua.

Arestian esan dugu ezen gogokoena telebistan, serieak direla gazteentzat. Bada, inkestatuen lehentasunak arlo honetan Espainiako bi kate pribaturi lotuta ikusi ditugu azken ikasturtean. Tele5 eta Antena3 dira kate horiek. Hor dute genero horren kontsumorik handiena Hego Euskal Herriko gazteek.

Era berean, arestiko zerrenda horretan ikusi dugunez, lehentasunen arteko bigarrena filmak dira. Non ikusten du filma gazteak? Bada, Tele5, Antena3 eta ETB2 kateetan. Kasu honetan, aipagarria da eremu hurbileko kate baten agerpena: erdaraz bizi den EAEko kate publikoa. Edozelan ere, filmak gaztelaniaz kontsumitzen dira, serieak bezala.

Hurbileko katera jotzen du Hegoaldeko gazteak umorea kontsumitzeko, ETB2 erdarazko kate publikora. Atzean geratzen dira gainerako enpresek eskaintzen dituzten programak. Erreferentzia argiko emanaldia izan da azken ikasturtean *Vaya Semanita* delakoa.

Musikaren bila, gazteak, batez ere, kate bi hautatzen ditu: pribatua bata (Canal+) eta publikoa bestea (TVE1).

Kirolerako, Hego Euskal Herriko gazteek eta nerabeek hurbileko telebistak nahi dituzte: ETB1 eta ETB2. Kateen lehentasunak ezartzerakoan, Canal+ kate pribatua agertzen da hirugarren lekuan.

Denbora-pasa tankerako programetarako, gure gazteek Espainiako kate pribatuak hobesten dituzte: Antena3 eta Tele5. Kultura eta dokumentalak ikusteko, TVE2 katera jotzen dute. Lehiaketetarako, Antena3 eta Tele5. Inoren bizitza pribatuan hazka egiteko, Tele5 da aukeratuena.

Nolabait laburtzearen, gure gazteak eta nerabeak kanpoko produkzioari begira igarotzen ditu bere telebista-ordurik gehienak. Dela Espainiako produkzioa, dela Hollywoodekoa, pantailak erakusten dituen protagonistak, eszenak eta argudioak ez dira inguru hurbilean sortuak.

4.1.1. Modako serietan eredu espainola nagusi

Hegoaldeko nerabeen eta gazteen telebista-kontsumoaren baitan, jada ezaguna zaigunez, serieak dira telebista produkturik kontsumituenak. Zeintzuk dira *izarrak*? Hona hemen horiek:

1. Los serrano
2. Aquí no hay quien viva

(ETB1ek eskaintzen duen *Goenkale* ez da agertzen lehen hamarren artean).

Gazteen sexuari gagozkiola, neskek nahiago dute *Los Serrano*; aldiz, mutilek gurago dute *Aquí no hay quien viva*. Saillkapenaren lehen lekuetan ez dauden beste serie batzuetan ere, hautua desberdina da gaztearen sexuaren arabera. Adibidez, neskek atseginez ikusten dute *Un paso adelante*; mutilek, aldiz, batere ez. Mutilek atsegin handiz ikusten dute *Los Simpson*; aldiz, neskek ez hainbeste.

Orintsu esan dugunez, *Goenkale*, euskarazko serie dekanoa, ez da gazteek kontsumitzen duten modako seriea. Serie horretan ere, sexuak ondo definitzen ditu kontsumo-azturak: neskek gehiago (bi halako) kontsumitzen dute ETB1en produktua mutilek baino.

Hasi Berriak seriearen kontsumoa oso urria izan arren inkesta pasatu zenean, datuek argitzen dutenaren arabera, neskek errazago jarraitzen dute euskarazko serie hori mutilek baino. Kasu honetan neskek hiru aldiz gehiago ikusi dute serie hori mutilek baino.

4.1.2. Genero informatiboan, hurbiltasuna eta publikotasuna da hobetsia

Eta informazioa? Bere kontsumo urrian, bada, hiru kate dira hobetsienak, ordena honetan: ETB2, Antena3 eta Tele5. ETB1, euskaraz diharduen publiko bakarra, bosgarren lekuan agertzen da, TVE1en atzetik, eta ETB2tik hogeit hamar puntu beherago.

KATEA	Kontsumoa
ETB2	% 29
Antena3	% 26
Tele5	% 24
TVE1	% 17
ETB1	% 10

Datuen iturria: CIES.

4. Taula: Basterretxea, Idoiaga, Zarandona, Ramírez de la Piscina (2005).

Informazioaren bila ere hurbiltzen dira gazteak telebistara, baina ez dago adostasunik euren artean adierazteko ea telebista, informazio-bide moduan, gainerako hedabideak baino zuzenagoa den, gainerako hedabideek baino modu egokiagoan informatzen duen, ea sinesgarriagoa den esatean. Inkestatuen erdiak (% 49) dio telebistak modu eskasagoan informatzen duela gainerako hedabideek baino, eta justu kontrakoa dio beste erdiak (% 48). Kurioa da nola banatzen den bi erditan gaztea, telebistako informazioaren balorazioa egitean.

Gazteei galdetuz gero, ETB2 publikoak *ondo* edo *oso ondo* informatzen du. Iritzi horren aldekoak dira inkestatuetatik hamarretik zazpi (% 73). ETB2k *gaizki* edo *oso gaizki* informatzen du hamar inkestatuen arteko bakar baten ustez (% 12). Hego Euskal Herriko gazteentzat ETB2 sinesgarriagoa da beste kate guztiak baino.

Antena3 jarri dute bigarren postuan inkestatuak. Gure gazteak askoz kritikoa-
goak dira telebista pribatuaren informazioa baloratzean. Diotenez, *ondo* edo *oso*
ondo informatzen du inkestatuen artean, hamarretik seiren ustez (% 58); eta, aldiz,
gaizki edo *oso gaizki* informatzen du inkestatuen herenaren ustez (% 35). Tele5eko
informazioa baloratzeko orduan, *ondo* edo *oso ondo* informatzen du inkestatuen
hamarretik zazpiren ustez (% 69); eta, aldiz, *gaizki* edo *oso gaizki* egiten du
laurdenaren ustez (% 24).

Gainerako telebistak modu kritikagoan eta zorrotzagoan izan dira hartuak.
Espainiako telebista publikoa oso kritikatu izan da.

Profil linguistikoa kontuan hartuta, zer kontsumo-azturak dituzte gure gazteak?
Itaun bi. Bat, gazte euskaldunek, euskaraz ikasiak eta alfabetatuak direnek, non
ikusten dituzte albistek? Eta, bi: zein kate hobesten dute erdaldunek, euskaraz
ikasi ez eta jakin ere ez dakitenek? Hona datuak:

NON IKUSTEN DITUZTE ALBISTEK			
SOSLAI LINGUISTIKOAK, Hegoaldean			
<i>Euskaldun alfabetatuak</i>		<i>Erdaldun hutsak</i>	
ETB2	% 36	ETB2	% 10
Antena3	% 20	Antena3	% 41
ETB1	% 16	ETB1	% 01
TVE1	% 12	TVE1	% 27
Tele5	% 22	Tele5	% 25

Datuen iturria: CIES.

5. taula: Basterretxea, Idoiaga, Zarandona, Ramírez de la Piscina (2005).

Hego Euskal Herriko gazteak erdaraz kontsumitzen du informazio orokorra.
Soslai linguistikoa kontuan hartuta, gazte euskaldunarentzat erreferenzialagoak
dira ETB2, Antena3 eta Tele5; ETB1 baino. Euskaldun alfabetatuentzat, katerik
kontsumituena arlo informatibo honetan, ETB2 da.

Aldiz, erdaldunentzat, ETB2 ez da informazioa jasotzeko telebistarik ikusiena.
Leku hori Antena3k bereganatzen du. ETB2ren aurretik kokatu dira kontsumo-
azturan Antena3z gain, Tele5 eta TVE1. Euskal Herriko erdaldunek ETB1 ez dute
ia piztu ere egiten informazioa jasotzeko.

Euskaldunek, beraz, gurago dute bertoko katea, baina erdaraz. Erdaldunek,
aldiz, nahiago espainiarra.

Euskararen sinesgarritasuna

Euskarazko kate bakarraren lan informatiboa baloratzean, Euskal Herriko gazte
euskaldun alfabetatuak diotenez, ETB1ek *ondo* edo *oso ondo* informatzen du,
inkestatuetatik hamarretik seiren ustez (% 61). ETB1ek *gaizki* edo *oso gaizki*
informatzen du hamar inkestatuen arteko baten ustez (% 14).

Euskal telebistak informatzen du...	ondo edo oso ondo	txarto edo oso txarto
ETB2	% 73	% 12
ETB1	% 61	% 14

Datuen iturria: CIES.

6. taula: Basterretxea, Idoiaga, Zarandona, Ramírez de la Piscina (2005).

Gasteizko Legebiltzarraren kontrolpeko kate publiko biak erkatuz gero (gogoratu 5. taula), nabarmen ikusten da gazte euskaldunek hobetsi egiten dutela erdarazko katea (% 36 vs. % 16). Beraz, batetik gehiago kontsumitzen dute eta, gainera, sinesgarriago iruditzen zaie erdarazkoa (ikus 6. taula).

4.2. Iparraldeak Frantzia ipar

Frantziari eta frantses hizkuntzari begira bizi da Iparraldeko gaztea, telebista-kontsumoari gagozkiola. Telebista-ekoizpenean, kate handiek erakarpen handia dute. Gainera, Ipar Euskal Herriak ez du apenas telebista-produkzio propioirik.

Iparraldeko gazteen gustuak eta Hegoaldekoenak antzekoak dira: serieak eta filmak maite dituzte Bidasoaz alde bietara. Iparraldean, serieak ikusteko, M6 kate pribatua da hautatuena, modu argian ikusi dugu hori inkestan. Eta bigarren lekuan agertzen da TF1. Gainerako kate frantsesak oso atzetik datoz. Bertokoen aipamenik ez dago inkestan.

Filmen kontsumoa marraztean, panorama irekiagoa da. Iparraldeko gazteek lau kate hautatu dituzte. Katerik hobetsiena TF1 da, bigarren koska batean M6 agertzen da, eta hirugarren batean Canal+ eta TF2.

Umorea eta musika, M6 katean bilatzen dituzte Ipar Euskal Herriko gazteek. Kirol-emanaldietarako, esparrua zabala da, ordena honetan hobetsi dira kateak: koska batean, TF1, France 2, eta France 3; bigarren koska batean, Canal+. Eta azken horretatik hurbil, Hegoaldeko ETB1.

Denbora-pasa tankerako programetarako, gure gazteek Frantziako kate bi hobesten dituzte: M6 eta TF1. Kultura eta dokumentalak ikusteko, Arte katera jotzen dute. Lehiaketetarako, TF1era. Famatuen programak ikusteko, M6 eta TF1 dira aukeratuenak.

Hegoaldeko kasuan gertatzen den modu bertsuan, Iparraldeko gazteak kanpoko produkzioari begira igarotzen ditu bere telebista-ordurik gehienak. Dela Frantziako produkzioa, dela Hollywoodekoa, pantailak erakusten dituen protagonistak, eszenak eta argudioak ez dira bertan sortuak.

4.2.1. Modako serieak

Iparraldeko gazteentzat telebista-serieen sailkapena honako hau da:

1. Charmed
2. Plus belle la vie
3. Ma famille d'abord

(ETB1ek eskaintzen duen *Goenkale* ez da apenas ezaguna, ezagunagoa da Iparraldean Espainiako Tele5eko *Los Serrano*).

Gazteen sexuari erreparaoan eginez gero, ikusten dugu ezen serieen kontsumoa Iparraldean, batez ere, neskei lotuta dagoela. *Charmed* seriearen kasuan, ikusleen artean nabarmen aurkitzen dira neskek, 17-6 da proportzioa, hots, ikusle femeninoak bi halako baino gehiago dira mutilekin alderatuta. *Ma famille d'abord* seriearen kasua orekatuagoa da, 10-6 da proportzioa, hots, bi halako ozta-ozta. Nabarmenagoa da *Plus belle la vie* seriearen kasua, proportzioa da 16-1, alegia mutil-ikusle bakoitzeko hamasei neska daude pantailari begira.

Mutilek ez al dute gustuko serierik Iparraldean? Bai, jakina: *Stargate*. Mutilek atseginen ikusten duten seriea horixe da, eta horretan neskek oso atzean gertzen dira, 14-2 da proportzioa, alegia: neska ikusle bakoitzeko, zazpi mutil daude pantailari so.

Goenkale seriearen kasua berezia da eta aipagarria Hegoaldearekin erkatuz gero. Arestian esan izan dugunez, Hegoaldean, batez ere neskek zeuden serie horren zaleen artean. Iparraldean, alderantziz gertatzen da: mutil gehiago dago pantailari so, neskek baino. Proportzioa 2-1 da, hots: neska ikusle bakoitzeko, mutil bi daude pantailari begira. Adinari arreta jarriz gero, esan dezagun ezen *Goenkale* seriearen ikusleak Iparraldean hamasei eta hamazazpi urteko gazteak direla.

4.2.2. Genero informatiboa, Frantziako bigarren katean sinesgarriago

Informazio-kontsumoa hiru kateri dago lotuta batez ere (ikus 7. taula). Lehen koska argi batean, TF1 katea jarri dute gure gazteek. Bigarren batean, lehenengotik urrun eta euren artean hurbil, France2 eta France 3 hautatu dituzte. M6 eta ETB1 atzetik datoz.

KATEA	Kontsumoa
TF1	% 34
France2	% 18
France3	% 16
M6	% 12
ETB1	% 06

Datuen iturria: CIES.

7. taula: Basterretxea, Idoiaga, Zarandona, Ramírez de la Piscina (2005).

Gazteei galdetuz gero informazioaren kalitateaz, informazioa jasotzeko orduan hobetsitako hiru kateen artean, France 2 da sinesgarritasunik handiena omen duena. Atzetik beste bi daude, ordena honetan: France 3 eta TF1.

Ikusten denez, bada hemen ñabardura paradoxiko bat: ikusiena, TF1 da, baina ez da sinesgarriena; sinisgarriena France 2 baita. Gazteei galdetuz gero, France 2 kateak *ondo* edo *oso ondo* informatzen du. Iritzi horren aldekoak dira inkestatuetatik hamarretik zazpi (% 72). France 2k *gaizki* edo *oso gaizki* informatzen du hamar inkestatuen arteko bakar baten ustez (% 10). Hegoaldean ETB2k duen lekua hartzen du Iparraldean France 2k informazioaren zuzentasunari gagozkiola.

France 3ren produktu informatiboak baloratzean, Iparraldeko gazteek diote kateak *ondo* edo *oso ondo* informatzen duela, eta iritzi horrekin datoz bat ia hamarretik zazpi (% 69). *Gaizki* edo *oso gaizki* egiten duela dio hamarretik ia batek (% 8).

TF1en kasuan, *ondo* edo *oso ondo* informatzen du inkestatuen % 68ren ustez, eta *gaizki* edo *oso gaizki* % 18ren ustez.

Iparraldeko kasua aztertzean, era berean, aipatzekoa da Arte eta Canal+ kateei aitortzen zaien sinesgarritasun-maila. Artek *ondo* edo *oso ondo* informatzen du inkestatuen erdiaren ustez (% 51); eta, aldiz, *gaizki* edo *oso gaizki* hamarretik baten ustez (% 11). Canal+ delakoaren kasuan, jarrera baikorra dute inkestatuen % 48k eta ezkorra % 11k.

4.3. Telebistan erreferentzialtasuna: atzerrian

Atal hau amaitzeko, azpimarratu nahi dugu ezen gaztea kanpoko produktuez elikatzen duela bere burua telebistari begira jartzen denean. Ekoizpen propioa eta autozentratua txikiak izanik gure artean, kontsumoa bera ere oso da urria.

Era berean, erreferentzia linguistikoari kasu eginez gero, azpimarragarria da erdara dela nagusi gazteen kontsumoan. Erdara da nagusi gazte erdaldunen kasuan, eta erdara bera da nagusi euskaldunen kasuan.

5. Telebista: kontsumo kritikoaren bila

Modu sakon eta berezitan aztertu dugu gazteen eta telebistako informazioaren arteko harremana. Inkestak eman dituen datuez gain, arlo honetan aurrera egiteko beharrezkoa izan zaigu eztabaida-taldeen teknika.

Oro har, jarrera nagusi bi bereiz litezke gazteen artean telebistako genero errealarari buruz hitz egiterakoan, bai albistegiak orokorrean hartuta, nahiz zehazki albiste jakinak kontuan hartuta. Alde batetik, argi dago gazteek begi kritikoz ikusten dituztela albistegiak hein handi batean; baina, bestaldetik, joera handia dute gazteek irudiekin liluratzeko eta hor kritikotasuna galtzeko. Nabarmena da kontraesan hori. Edozelan ere, zentzu absolutuan, kritikoago agertzen dira gazteak telebistak gazteen gaiak erakusten dituenean, besteetan baino.

Gazteek ez dute arazorik esateko eta errepikatzeko ezen telebistetako albistegiak sarritan manipulaten direla arrazoi estrakomunikatiboak direla-eta (arrazoi edo interes politikoak tarteko, adibidez). Baina, gazteek irudiari aitortzen dioten errealtasunaren balizko lekukotasuna handia da, handiegia agian. Oro har, hitz esana eta idatzia erraz manipulatu daitekeela aitortzen dute; aldiz, irudia zuzenagoa dela aldarrikatzen dute, eta, hartara, manipulagaitzagoa dela diote. Ikuspuntu horretatik, badirudi irudiaren irakurketan gazteak klabe interpretatzaile kritikoen faltan daudela.

Gazteek, adineko askok bezala, sinestesia moduko bat bizi dute irudiaren aurrean, izan hau genero errealekoa nahiz fikziozkoa. Or har, sinestesiak sentsazioen nahasmenaz eta bateraketaz hitz egiten digu. Irudiarekin, gazteak halako sinestesia moduko bat bizi du, zeren telebistak eskainitako irudiak *zentzu naturala*

eta antropomorfoa duen heinean, gaztearentzat irudi hori manipulaezina da; gazteak dioenez: ikusten badut, hor dagoelako seinale da, zuzena da lekukotasuna, beraz.

Enkoadreak, enfokeak, sekuentziaren dramatikotasunak, kamara subjektiboaren efektua... ez dira lantresna narratzailetzat hartuak gazteen partetik, ez dituzte *ikusten*. Dena da erreala, diotenez. Ez dute horietan teknika narratzaileetan igorlearen eskua, eta igorlearen intentzionaltasuna, ikusten.

Telebistan, fikzioak eta errealak kanala konpartitzen dute. Generoek, akzio-motek, gain-jario tematikoez, parrilaren kokapen sinkronikoa dute telebista-kate desberdinetan, eta kate berean diakronikoa. Telebistan fikzioa eta erreala berdin antzera komertzializatzen dira.

Teknika narratzaile berak konpartitzearen faktua zaildu egiten du fikzio dramatikoa eta errearen islari dagokiena banatzea eta bereiztea. Baina kontsumitzaile moduan, gazteak arreta handiago eskaini behar lioke begien aurrean jartzen duenari. Beste arlo guztietan legez, produktu kulturalen eta eduki sinbolikoen kontsumoak arretatsua beharko luke izan, arduratsua.

Gazteentzat bada hausnarketarako mintzagaia hedabideen *objektibotasuna*. Diotenez, objektibotasuna da gertakariaren alderdi guztiak erakustea, gezurrik ez esatea eta informazioa eta iritzia ez nahastea. Horraino *ongi heltzen* dira, baina, hortik aurrera zehazten jarraitzeko, lantresnak falta dituzte.

Gazteentzat, telebista da albiste-iturririk erabiliena, kontsumorik handiena duena. Telebistako irudiak informazio asko eta erraza ematen omen du. Gazteek beren buruari galdetzen diote, batzuetan, zertarako erabili beste bide batzuk, *baldin eta telebistak dena delako gaia begien aurrera ekartzen badu, gertatu den unean ekarri ere*.

Telebistaren kritika egitean, gazteek batez ere diotena da telebista faktuan zentratzen dela, gertakarian. Baina, normalean ez duela horren azpian dagoen arrazoia azaltzen, ez dela gertakariaren testuingurua nahikoa azaltzen. Hankamotza izanik ere, iruzkin interesgarria da hori.

Beste hedabideetan, edo etxean, edo lagunekin bilatu behar izaten dute telebistako informatiboetan faltan omen duten testuinguru azaltzaile hori. Edozelan ere, beste hedabideei eskaintzen dieten arreta zein den kontuan izanda, berrogeialdian jarri beharko litzatekeen baieztapena iruditzen zaigu azken hori.

Zeren, gazteek eurek diotenez, *gauzak telebistan ikusten dira, prentsa marjinala da eta irratia musika entzuteko da*, halaxe esan digute hitzez hitz eztabaidaltaldeetan. Oso aukera argia dute gazteek. Kontraesan moduko bat bizi dute gazteek informazioaren kontsumoari gagozkiolarik. Badirudi diotela: telebistan gauzak ondo ikusten dira, baina arrazoiak ez dira erakusten; hala ere, bestelako bide alternatiboak kontsultatu beharko genituzkeen arren, hedabide "osoagorik" ez dugu normalean kontsumitzen.

Arduratsuen gaituena da susmatzen dugula gazteak ez dakiela telebista ikusten. Ildo horretatik interesgarria da ikustea nola aitortzen duten gazteek beraien

eskolan *oso gutxi hitz egiten dela telebistari buruz eta telebista ikusteko irizpide kritikoei buruz*. Eztabaida-taldeetan ikusi ahal izan dugunez, gazteei ikus-entzunezkoen narrazio-tekniken ikuspegi orokorra eta kritikoa falta zaie.

Eztabaida-taldeetan telebistaren kritika sustatu nahi izan dugunean, izan da esan duenik ezen telebista *arinegia dela, eta gauzak ondo jakiteko prentsa idatziaren beharra dagoela*. Baina hori dioenak esan du une bat lehenago prentsa oso dela marjinala bere kontsumoan...

Gazteek telebistari egozten dioten hutsunerik handiena da albisteetan gauzak *oso gainetik azaltzen direla, sakondu gabe bezala ematen direla; aldiz, prentsan sakontzeko aukera handiagoa ikusten dute*. Baina, gutxiengo bat da gazteen artean berripaperera egunerokotasun normalizatuan jotzen duena.

Egia da —diote gazteek— ezen kasu askotan telebista baliagarria dela mundu erreala ezagutzeko, baina *batzuetan kontatzen dizute zerbait oso interesgari moduan eta zuk ez duzu inondik ikusten non datzan horren interesgarritasuna*. Baina, ez dute informazio hori berrogeialdian ezartzen.

Gazteek salbuespen gisa baino ez dute beste hedabideetara jotzen informazioa kontrastatzeko, telebistan jaso dutenaren alternatiba bilatzeko. Hori egiten dutenean, gehienetan Internet hartzen dute bide *alternatibotzat*. Interneten, bilatzaile nagusiei esker (*Google* eta estilo horretakoak) aurkitzen omen dute gazteek *beste* bertsio hori. Bilatzaile automatikoari galdetzen diote, eta erantzuna datorrenean *lehenengo* orrialdeak irakurtzen dituzte, *zeren besteak eta guztiguztiak irakurtzeak luze joko bailuke*. Gazte gutxi batzuek, aldiz, orrialde jakinetara jotzen dute informazio alternatiboa bilatzeko.

Edozelan ere, argi dute gazteek eta nerabeek desberdintasun handiak daudela telebista batzuen eta besteen artean. Diotenez, *diferentzia handiak daude batzuetatik besteetara, eta batez ere zein gai hartzen den eskuartean kontuan izanda*. Oso argi ez dakite nola egiten den hori, baina badakite gertakari beraren bertsio desberdinak badirela izan; eta zenbait kasutan kontrajarriak susmatzen dituzte bertsioak telebista-kate bat piztu edo beste bat piztu.

Oro har, gazteek uste dute ikuspegi osoagoa dutela Euskal Herriko gazteek Espainiari buruz, adin bereko espainiarrek Euskal Herriari buruz baino⁵. Eta hori horrela da, diotenez, *bertoko telebistak libreagoak direlako*.

Adierazi dutenez, telebistetako albistegietan joera ohikoak omen dira exajerazioa eta manipulazioa, eta hori arbuigarria iruditzen zaie, gizarte-arazoaren muina eta arrazoiak ez delako inoiz argi kontatzen. Diotenez, *haiek* (telebistek) *erabakitzen dute gai bakoitzetik zer eman eta zer ez eman, hautua beti da euren interesen arabera*.

Politika asko kontsumitzen da telebistatik, ez dago dudarik hor. Edozelan ere, gazteek aitortzen dutenez, familian eta lagun-taldean daude norberaren hautu politikoak definitzeko eta indartzeko esparruak, hedabideetan baino areago. Eskolan

5. Gogoratu eztabaida-taldeak Hegoaldean bakarrik garatu direla.

ere bada astirik horretaz hitz egiteko; diotenez, *gehiago etikari buruz eta erlijioari buruz, politikari buruz modu zuzenean baino.*

Beste kritika bat ere egiten zaio telebistari, diotenez, *albiste "on" izan daitezkeen horietan, nekez gara protagonistak gazteok.* Bestela esan, eskandalua dela medio da gaztea telebistako protagonista, beraiek diotenez.

Gure irudiko, kontraesan handiak bizi dituzte gazteek telebistari buruz galde-tuak direnean. Hein batean kritikoak dira, baina kritika horien azpian irizpide teknikoaren falta nabaritzen da.

5.1. Gazteekin, ETBko albisteak ikusten

2004-2005 ikasturteko neguan, Hegoaldeko zortzi ikastetxe bisitatu genituen. Bakoitzean eztabaida-talde bat antolatu zen⁶ eta telebista-albiste jakin batzuk ikusteko eta komentatzeko aukera izan genuen haiekin.

Albiste berberak gidatu zituzten elkarrizketak eta eztabaidak ikastetxe guztietan. Jakina denez, profil linguistikoari gagozkiolarik, ikasketa-eredu desberdinetan ikasten dute Euskal Herrian gazteek. Albisteak bertsio bitan eman ditugu: euskal taldeetan ETB1en euskarazko bertsioa, erdal taldeetan ETB2ren bertsioa; aipatzekoa da erdal talderen batean edo bestean euskal hiztunak ere bazirela, baina ez aparteko talde bat sortzeko beste.

Lan egiteko prozedura bikoitza izan da. Alde batetik lan idatzi bat eskatu zaie ikasleei albiste bakoitzari buruz, eta ondoren eztabaidara sartu gara idatzitakoak gogoan hartuta. Eztabaidaren baitan, beste urrats baten moduan, telebistetako albistegiei buruz hitz egin da, kate bakoitzaren politika informatiboa gogoan hartuta.

Eztabaida horiek eman dutena laburtzeko, honako ardatz hauetan jarriko dugu arreta:

- hasteko, albistearen laburpena egingo dugu (guk, ikerlariok) eta
- ondoren ikasleen iritzia bilduko dira, bi esparrutara lerrokatuta:
 - zer dagoen **ondo** albiste horretan,
 - eta zer dagoen **gaizki**.

6. Eztabaida-talde bakoitzean adin desberdineko neska-mutilak elkartu genituen. Eztabaidetan modu librean hartu zuten parte. Boluntarioak izan ziren gure mintzakide guztiak, eta ez guk zuzenean hautatutakoak. Eztabaida-taldeetan batez ere bi produktu jakin aztertu genituen: telebista-edukiak eta publizitate-iragarkiak. Artikulu honetara, telebistako albistegiei buruzko iritzia aldatu ditugu.

5.1.1. La Naval

Laburpenak	
ETB1	Minutu bateko albistea, kazetariaren hitzak irudien gainerik. Albistea hasten da sutan dagoen barrikada bat erakutsiz. Langileek buruturiko ekintza ugariak zerrendatzen ditu kazetariak bere testuan. Irudietan ikusten dira langileen ekintzek eragindako arazoak. Aipatu, aipatzen dira: San Fernando, Puerto Real, Gijón, Cadiz, Ferrol eta Sevilla. Irudietan polizia armaturik ikusten dira, barrikaden aurrean.
ETB2	Minutu bateko albistea, kazetariaren hitzak irudien gainerik. Albistearen hasieran, sua ikusten da barrikadetan. Testuan La Navaleko langileak aipatzen dira. Bilbo inguruko irudiak ikusten dira. Ertzainen eta langileen arteko liskarren berri ematen da. Langileek ez dutela ez atzera egin ezta amore eman ere, hala esaten da testuan. Gomazko pilotak jaurtitzen ikusten dira ertzainak, langileak harriak eta torlojuak.

Oro har, albistea ondo kontatu dela diote gazteek. Baina badira euren artean “baina” bat eranstean diotenak lehen baieztapen absolutu horri.

Albistea **ondo** dagoela adierazteko, gazteak honela mintzo dira:

- Albiste horrek langileak erakusten ditu, La Navalen egoerak eragindako ondorioen kontra protestatzen.
- Albisteak ondo erakusten ditu ontzioletako grebak utzi dituen kalteak.
- Albisteak kontatzen du protesta gertatu den bezala.
- Albisteak erakusten ditu langileak beren eskubideen aldeko ekintzetan.
- Albisteak ongi kontatzen du gaia, zeren ez baitira bakarrik politikoen hitzak azaltzen, langileen ekintzak ere kontuan hartzen baitira.

Albisteak **hutsuneak** dituela salatzeke unean, gazteak honelakoak esaten dituzte:

- Protestak bakarrik agertzen dira, protesta horien arrazoiak ez dira azaltzen.
- Bai, ondo dago albistea, baina bakarrik jarri digute langileek egin dutena.
- Ez da errealitatea bere osotasunean azaltzen, arrazoiak ez dira batere azaltzen.
- Ondo dago, baina albisteak ez du beste partea erakusten.
- Ez da albiste ona. Zeren langile guztiek ez baitute horrela jokatzeko.
- Albistea ondo dago, bai eta txarto ere. Grebalariak ez dira gaizkileak, eta horrela izan dira erretratatuak.

5.1.2. Gosea eta pobrezia

Laburpenak	
ETB1	<p>Minutu pasako albistea, kazetariaren hitzak irudien gainetik.</p> <p>Calcutako tren-geltokia ikusten da albistearen hasieran. Kazetariaren testuak dio hor dutela bizilekua irudietako mutikoez. Pobrezia eta garapena aurrez aurre jartzen dira testuan, UNICEFek hala egiten duela aipatuta. Kazetariak dio mutikook merkatuetan ibiltzen direla lapurretan. Zenbait datu eskaintzen da: goseaz, hiesaz, prostituzioaz, eta eskola-hezkuntzarik ezaz.</p>
ETB2	<p>Minutu pasako albistea, kazetariaren hitzak irudien gainetik. Baita protagonista batzuen hitzak ere.</p> <p>Afrika ikusten da albistearen hasieran, jende argal eta gaixoa erakusten da zuhaitz baten azpian. Munduko pobrezia datuak ematen ditu kazetariaren testuak. Gosearen heriotza-tasak irakurtzen ditu kazetariak. Irudietan, lapiko baten barruan, arratoi hila erakusten da. Herri garatuetako goi-ordezkarien bilera erakusten da ondoren, elkarri bostekoa ematen ari dira Brasil, Espainia, Txile, Frantzia, eta Nazio Batuen goi-agintariak. Txileko ordezkariak dio: <i>arazoa konpontzen hastea herri aberatsenen eskuetan badago egon</i>. Janari-laguntzak erakusten dira irudietan. Kazetariak dio Nazio Batuetako berrogeita hamar Estatuk esan diotela baietz gosearen aurkako dirulaguntzak emateari. Amaitzeko, kazetariak dio Estaturik gehienek ez dutela 0,7arekin konplitzen.</p>

Hemen ere, “bai eta ez”. Gosea arazo bat omen da munduan, baina ba omen dira beste batzuk ere, hori bezain larriak edo larriagoak akaso. Oro har, gazteek komentatzen dute ezen, batetik, potentziek hirugarren mundua esplotatzen dutela, eta, bestetik, eurek eragindako pobre horien alde zerbait egin nahi dutela erakusten dutela. Gosea munduan, arazo larria eta injustua dela diote, hala ere, diotenez, oso jende gutxi militatzen du gosearen kontrako erakundeetan. Eta oso jende gutxi aldatzen ditu bere kontsumo-azturak, gazteak barne.

Albistearen egiturari eta edukiari buruz hitz egitean, gazteek eta nerabeek jarrera bikoitza erakusten dute. Batetik, diote **ondo** kontatua dela:

- Ondo azalduta dago arazoa, irudiak oso egokiak dira, gogorrek direlako.
- Ongi islatzen da arazoa, beraien egoera halakoa baita.
- Ongi dago albistea, zeren irudiek ongi islatzen baitute pasatzen ari direna.
- Miseria ongi azaltzen da, eta irudiek adin desberdinetakoen miseria agertzen dute.
- Ondo dago, zeren laguntzarik bidaltzen bada, pobrezia aurre egin baitaioke.
- Nik ez dakit horretaz ezer, beraz, telebistak dioena sinesten dut.

Baina, albiste honetan badira **hutsuneak**, honako hauek:

- Arazoaren parte bat baizik ez da azaltzen: herri horietan ere gauza onak izango dituzte, eta ez da azaltzen.
- Pobrezia benetako samina ez da ageri. Ez dago ondo albistea, jakina baita agintariek aldarrikatzen duten plana beteko ez dena.
- Ez da hain urrun joan behar pobrezia zer den ikusteko, albo-alboan ere badago, nahiz eta ez erakutsi.

5.1.3. Botilatzarraren edo kale-edanaren fenomenoa

Laburpenak	
ETB1	<p>Minutu pasako albistea, kazetariaren hitzak irudien ginetik eta zenbait protagonistaren adierazpen zuzenak.</p> <p>Elgoibarko tren-geltokia erakusten du albisteak hasieran, gazteak atzera eta aurrera nasan. Kazetariaren testuak dio horrela hasten dela asteburuko gau-giroa gazteen artean. Plastikozko botilak eta plastikozko edalontziak ikusten dira kalean barreiatuturik, zabortegia dirudi kaleak. Nagusi helduen adierazpenak eskaintzen dira zuzenean, salatzen dute gazteek edukiontziak botatzen dituztela errekarara, basatiak direla gazteak; guraso moduan, kezka agertzen dute. Gurutze Gorrikoek diote intoxikazio etiliko ugari izaten dela, tartean pastillak ere egon daitezkeela...</p>
ETB2	<p>Minutu pasako albistea, kazetariaren hitzak irudien ginetik eta zenbait protagonistaren adierazpen zuzenak.</p> <p>Albistearen lehen irudietan ikusten dira gazteak bildurik, botilak eskuan. Kazetariak dio bere lehen hitzetan: Bilboko gazteen gau-giroa asteburuetan. Kazetariaren testuan honoko hitz hauek kateatzen dira: asteburua, gazteak, botilatzarra, alkohol-trafikoa, Iturribide, Solokoetxe. Bertako auzokoen salaketak eskaintzen dira: kexu dira, zarata eta zikinkeria handiak daude gazteen erruagatik. Gazteek eurek diote ez direla gazteak bakarrik horrela dabilzanak. Gazteek diote tabernak oso garesti direla. Irudietan, udaltzainen patruilak erakusten dira. Kamara-aurrekua egiten du kazetariak, dio ezen udaltzainek dokumentazioa eskatzen dietela gazteei, eta horiek adin txikikoak direnean, gutun bat bidaltzen zaiela gurasoei. Irudietan gazteen eskuak ikusten dira, ardoa eta kola-edariak nahasten.</p>

Gutxi gorabehera, albisteak **ondo** erretratatzeko du gaia, hala diote:

- Albistea ongi dago, jendearen iritziak hartzen dituelako kontuan, nahiz eta horiek zaharrenak diren, batez ere.
- Albistea egokia da, zeren horrelakoak nonahi gertatzen baitira asteburuetan.

Edozelan ere, gazteen artean benetan gertatzen den fenomeno bat izan arren, eta askori kritikagarria iruditu arren, *botilatzarrak* hedabideetan izan duen erabile-rarekin ez daude batere konforme gazteak. Gazteak oso kritiko azaltzen dira:

- Manipulazio argia dago kasu honetan, exajerazio hutsa da kontatzen dutena.
- Egia da botilatzarrarena, baina leku batzuetan baino ez da gertatzen, ez da erabatekoa gazteen artean.
- Gaia pixka bat globalizaturik dago, denei leporatzen zaie bakar batzuen.
- Gazteok beti erakusten gaituzte gaizkile moduan, beti lotzen gaituzte terrorismoarekin edo kale-borrokarekin.
- Albistean ez zaie iritzia eskatzen gazteei, eta hori ez dago ongi.
- Hain nabarmena da exajerazioa, ze ematen du Elgoibarren larunbatero biltzen diren gazteak drogazale amorratuak baino ez direla.
- Albiste horrek eragin ezkorra izan du guraso askorengan, kasu askotan gertatu da hara berriro joaten ez uztea.

5.1.4. Iruñeko gaztetxearen itxiera

Laburpenak	
ETB1	<p>Minutu eta erdiko albisteak, kazetari-hitzak irudien gainetik, kamara-aurrekoa, protagonistak.</p> <p>Etxea botatzen ikusten da makina, albistearen hasieran. Kazetariaren testuak dio: poliziak itxi du gaztetxea. Testuak dio auzokoek diotela modu txarrez atera dituztela poliziek gazteak. Kazetariak salatzen du ezin izan duela beste irudirik grabatu, poliziek debekatuta. Kamara-aurrekoa egiten du kazetariak, dio: makinak hormak botatzen ari dira. Auzokoen salaketa dator ondoren: makinaren eraginez, inguruko etxeetan kalteak dira. Manifestazioa ikusten da, kaleetan tentsioa dela dio kazetariak. Albisteak amaitzeko, kazetariak dio Yolanda Barcina-k bere horretan segituko duela. Gazte kolpatuen ubeldurak erakusten dira.</p>
ETB2	<p>Minutu bateko albisteak, kazetariaren hitzak irudien gainetik, Barcina-ren hitzak zuzenean, gazteen lekukotasun zuzena.</p> <p>Gazte bat teiltatzen erakutsiz hasten da albisteak. Kazetariaren testuak dio: goizeko lehen orduan jo da alarma, ondoren poliziak sartu dira gaztetxean. Irudietan kanporaketaren aurkako protestak ikusten dira. Kazetariak dio: barruan inor ba ote zen begiratu gabe, ekin zaio gaztetxearen sunsiketari. Barcina alkateak dio pantailan: udalak ez du beste erremediorik izan akto judizialak eskatzen duena betetzea baino. Gazte batzuk atxilotuak izan direla dio kazetariak. Amaitzeko: gazteen salaketak entzuten eta ikusten dira, asaldaturik daude.</p>

Gazteak, oro har, pozik geratu dira albiste horrekin. Gehiengo zabal batek esan du albisteak modu egokian erretratazen duela arazoaren funtsa zertan datzan. Gazte apur batzuek ez dute erantzun eta ez dira posizionatu albistearen aurrean, baina erantzun dutenen artean, erabateko adostasuna ikusten da: albisteak **ondo** dago, gazteek diotenez.

- Ondo dago, erakusten diren irudiak oso egokiak dira.
- Nahiz eta gazteen iritzirik ez den kontuan hartu, ondo kontatu da albisteak.
- Ondo dago, poliziak egindako gehiegikeria ez dute ezkutatu.
- Sartzean erabilitako bortxa erakusten du, baita auzotarren iritzia ere horretaz.
- Bai, ondo dago kontatuta, alde bietako iritzia agertzen dira.
- Bai, polizia ez da horrela ikusten beste albiste askotan.
- Albisteak gazteen aldekoa da.

Kritika egitean, **hutsuneak** zerrendatzean, gazteentzat iritzi-aniztasunik eza da ardura-iturri nagusia, bai eta poliziaren jarrera bera ere.

Gutxiengoa izan da ardura hori izan duena, baina ardura hori izan dutenek oso argi azaldu dute beren ezinegona. Hara zer dioten gazteek eurek balizko iritzi-aniztasunik ezari buruz eta poliziak informazio-eskubidearen aurrean izan duen jarrerari buruz:

- Oro har, ondo dago albisteak, baina subjektiboegia da; beste ikuspegi batzuk falta dira.
- Ez da guztiz objektiboa albisteak, iritzi guztiak ez daude jasota.
- Kazetariak ongi egin du bere lana, baina poliziak ez dio utzi lan egiten.

6. Azken hitzak: hezkuntza kritikoa telebistaz

Euskal Herriko gazteak komunikazio-teknologia berrienetako aparatu ugariaren jabe dira. Teknologia horiek eskura izateak ahalbidetzen die gure gazteei lehenago ez bezalako kontsumo-maila potentziala edukitzea kultura-industrien produktuen artean. Eurek aitortzen dutenez, beharrezkoak dira teknologia horiek euren bizitzarako, eta euren azturak ere baldintzatuta daude aparatu horien erabilera dela-eta. Hala ere, komunikazio-teknologia horiek ez dute beraiekin ekarri garraiatzen dituzten eduki sinbolikoen deskodifikazio beregaina egiteko lantresna intelektualik. Kexu gara gu geu. Baita haiek ere, batzuetan.

Artikuluaren garatu den telebistaren kasu jakinean, Euskal Herriko gazteak egunero-egunero begiratzen dio kutxa magikoari, dela aisia betetzeko dela informazioaren jabe egiteko. Batez beste, gazteak 119 minutu eskaintzen dizkio telebistari egunero, eskolatik kanpo. Telebistak eskaintzen dituen ikus-entzunezko diskurtsoak deskodifikatzeko unean, albistegietan eskaintzen diren irudien lerro dramatikoak ez ezaguna da gazterik gehientzat. Ikus-entzunezkoen diskurtso narratiboaren tekniken jabe ez diren heinean, sinestesia maltzur moduko bat bizi dute gazteek irudia eta erreala nahasten dituztela behin eta berriz. Bestela esanda: *letra* ezagutzen dute, ez *metafora*.

Bestalde, kontsumo-aukerei gagozkielarik, Euskal Herrian dagoen produktu autozentratuen basamortua nabarmena da. Espainiari, Frantziari eta Hollywoodi begira dago gure gaztea. Euskal Herrian ekoiztitakoa salbuespenezkoa da gaztearen kontsumoan. Era berean, gazteei propio eskaintako telebista-produktuak euskaraz gutxi dira, eta eskaintza orokorrean barreiatu ezin dute osatu masa kritikorik.

Eromen digitalaren garaiotan, ez al du inork pentsatu gazteentzako telebistakate propiorik sortzea euskaraz?

Azpimarragarria egiten zaigu, era berean, Iparraldearen eta Hegoalderen artean dagoen ez-ezagutza telebisiboa: Iparraldeak ez du Hegora begiratzen, eta Hegoaldeak gauza bera Iparraldearekin. Banaketa administratiboak telebistalubaki argia ekarri du berarekin.

Komunikazioa ikasi eta horretan trebatu

Hezkuntza-sistemak ez ditu egokitu bere ikasketa-programak teknologia horiek sortu duten egoera berrira. Zentro batzuetako lan pilotuak alde batera utzita, eskolarik gehienetan ez da komunikazio-teknologiek eskaintzen dituzten produktuen gaineko hausnarketa-biderik sortu. Eskolak trebatu egin du gaztea teknologiaren ikasketa praktikoan: gazteak ondo daki ordenagailua erabiltzen, sarean mugitzen, telebista pizten... baina eskolak ez du gauza bera egin edukien azterketaren mailan, ezta diskurtsoen analisisian ere.

Telebistaren aurrean jartzen denean, gazteari irakurketa-parametro jantzia falta zaio, ikusten duenaren azterketa sakona eta balorazio zehatza egiteko. Eta falta zaio eskolak eskaini ez diona ez duelako etxean ikasterik izan. Telebistak eskaintako edukien gaineko zelanbaiteko kontrola familian praktikatzen den arren ikus-entzunezkoen diskurtso-tekniken gaineko kontrola anekdotikoa da kasurik gehienetan; eta horrek lausotu egiten du ustez edukiei ezartzen zaiena.

Ikerketa-taldearen iritziz, ordua da medioen ikasketa eskolara eramateko. Eztabaida sustatu behar da hezkuntza-sistemaren baitan, medioen ikasketa zelan txertatu erabakitzeko. Eskolan ez dago irakasgaririk astean 10 orduko dozentzia duenik. Eta Euskal Herriko gazteek denbora hori ematen dute telebistari begira astean. Desfase hori ez da konpondu behar telebista debekatuz, telebista irakurtzen erakutsiz baizik.

Bibliografia

- Aguaded, J.I. (1998): *Descubriendo la caja mágica. Aprendemos a ver la tele*, Comunicar taldea, Huelva.
- , (2000): *La Educación en Medios de Comunicación*, Comunicar taldea, Huelva.
- Apaolaza, J.M. (1996): "El espacio y el tiempo en el estudio de la juventud" in *Kobie, Antropología cultural*, 7, EHU, Bilbo.
- Aparici, R. (1994): *Los medios audiovisuales en la educación infantil, la educación primaria y la educación secundaria*, UNED, Madril.
- Arriaga, M. (1997): "Abertzales heterodoxos: dudar para existir" in *Inguruak, Revista de Sociología*, 19, EHU, Bilbo.
- Ayestarán, S. et. al. (1990): "Ideología y percepción del conflicto grupal" in *BBA Análisis e intervención social*, Santiago de Compostelako Unibertsitatea, Santiago de Compostela.
- Bandura, A. (1986): *Teoría del aprendizaje social*, Espasa-Calpe, Madril.
- Berger, J. (1972): "From today art is dead" in *Times Educational supplement*, 1972ko abenduaren lehenena.
- Barandiarán, X. (2000): "La identidad política de la juventud vasca", in *Mundaiz*, Deustoko Unibertsitatea, Bilbo.
- , (2001): *Gazteak eta politika*, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Gasteiz.
- Berrio-Otxoa, K.; Martínez de Luna, I. et al. (2002): "*Gaztetxoak eta aisialdia. Etorkizuna aurreikusten*", Ikerketa-proiektua, EHU, Leioa.
- Eunkung J eta Berkowitz L. (1996): "Análisis del efecto priming sobre la influencia de los media: una puesta al día", in J. Bryant eta D. Zillmann (arg.): *Los efectos de los medios de comunicación. Investigaciones y teorías*, Paidós, Bartzelona.
- Bonney, B. & Wilson, H. (1983): *Australia's Commercial Media*, MacMillan, Melbourne.
- Buckingham, D. (2005): *Educación en medios. Alfabetización, aprendizaje y cultura contemporánea*, Paidós, Bartzelona.
- Castells, M. (1998) *The information Age: Economy, Society and Culture, Volume II: Power of identity*, Blackwell Publishers Inc, Massachussets.
- Cohen, S. & Young, J. (1973): *The manufacture of news*, Constable, Londres.
- Considine, D. et. Al. (2002): *Thinking Critically About media: Schools and families in Partnership*, CIC, Washington.
- Duncan, B. et al. (1996): *Mass media and Popular culture*, Harcourt-Brace, Toronto.
- Elzo, J. et al. (1987): *Informe sociológico sobre comportamientos, actitudes y valores de la juventud vasca actual*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen-zentrua, Gasteiz.
- , (1990): *Informe sociológico sobre comportamientos, actitudes y valores de la actual la juventud vasca y de su evolución en los últimos cuatro años*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen-zentrua, Gasteiz.
- Firth, B. (1968): *Mass Media in the Classroom*, MacMillan, Basingstoke Hampshire.
- Fiske, S.T. & Taylor, S.E. (1991): *Social cognition*, McGraw-Hill, Cork.
- Fontcuberta, M. de (2001): "El rol de los medios de comunicación en la gestión del conocimiento" in D. Covi, *Comunicación y Educación: La perspectiva latinoamericana*, ILCE, Mexiko DF.

- Freedman, J.L. (1984): "Effect of television violence on aggressiveness, in *Psychological Bulletin*, **96**.
- Freinet, C. (1975): *Nacimiento de una pedagogía popular*, Laia, Barcelona.
- Gaitán, J.A. & Piñuel, J.L. (1998): *Técnicas de investigación en comunicación social. Elaboración y registro de datos*, Síntesis, Madrid.
- Galtung J. & Ruge, M. (1965): "The Structure of the Foreign News" in *Journal of International Peace Research*, **1**.
- García Matilla, A. et al. (1996): *La televisión educativa en España*, MEC, Madrid.
- , (2004) (ed.): *Convergencia multimedia y alfabetización digital*, UCM, Madrid.
- Gardner, H. (1983): *Frames of mind: The Theory of multiples intelligences*, Basic books, New York.
- Garitaonandia, C. et al. (1999): "Qué ven, cómo juegan los niños y los jóvenes" in *Zer aldizkaria*, **6**, EHU.
- Gerbner, G. (1983): *Ferment in the field: 36 Communications Scholars Address Critical Issues and Research Tasks of the Discipline*, Annenberg School Press, Philadelphia
- Gollay, J. P. (1973): *Introduction to the Language of Image and Sound*, British Film Institute (BFI), Londres.
- Hall, S. (1977): "Culture, the Media and Ideological Effect", in J. Curran et al. (arg.), *Mass Communication and Society*, Edward Arnold, Londres.
- Hall, S. & Whannel, P. (1964): *The popular arts*, Pantheon, New York.
- Jones, M. (1984): *Mass Media Education, Education for Communication and Mass Communication Research*, Unesco, Paris.
- Kaplun, M. (1998): *Una pedagogía de la comunicación*, Ediciones de la Torre, Madrid.
- Letamendia, F. (1998): "Sobre un cambio de escenario de las violencias vascas: las movilizaciones juveniles" in *Vasconia, Cuadernos de Historia-Geografía*, **26**, EHU.
- Martínez de Luna, I. & Berrio-Otxoa, K. (2001): *Etorbizuna aurreikusten 99: Euskal herriko gaztetxoak eta euskara*, NUP-EHU-EKE, Bilbo.
- Masterman, L. (1979): *Television Studies: Tour approaches*, British Film Institute (BFI), Londres.
- Masterman, L. (1980): *Teaching about Television*, MacMillan, Basingstoke Hampshire.
- , (1985): *Teaching the Media*, Methuen & Co. Ltd, Londres.
- , (1993): *La enseñanza de los medios de comunicación*, Ediciones de la Torre, Madrid.
- Mehrabian, A. & Wixen, W.J. (1986): "Preferences for individual video games as a function of their emotional effects on players" in *Journal of Applied Social Psychology*, **16**.
- Nathanson, A. I. (2004): "Factual and Evaluative Approaches to Modifying Children's Responses to Violent Television" in *Journal of Communication*, **54(2)**.
- , (2002): "The Unintended Effects of Parental Mediation of Television on Adolescents" in *Media Psychology*, **4**, liburukia, **3**.
- Orozco, G. (1998): *La televisión entra al aula*, SNTE fundazioa, Mexiko.
- Pascual, J. (1989): "Movimientos sociales y juveniles dentro del cambio estructural de Euskal Herria en el período actual" in BBAA *Identidades colectivas y vida cotidiana*, Federación de Asociaciones de Sociología del Estado español, Madrid.
- Rivera, A. (1998): "Tradición, manipulación y actualidad de la violencia en Vasconia" in *Vasconia, Cuadernos de Historia-Geografía*, **26**, EHU, Leioa.
- Roberts, D.F. & Foehr, U.L. (2004): *Kids & Media in America*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Ruiz Olabuenaga, J. I. (1994): "Ni rebeldes, ni narcisos (Estilos de vida y juventud)" in *Inguruak, Revista de Sociología* **10**, EHU, Leioa.
- Sánchez Bravo, A. (1991): "Educomunicación" in A. Benito (arg.) *Diccionario de Ciencias y Técnicas de la Comunicación*, Ediciones Paulinas, Madrid.

